

51. atala: Bakarka

## Katarroa

### 51.1.- Hautatu erantzun egokia:

- Zer iruditzen zaio Kevini “Jesus” esatea doministiku egin ondoren?

- a) Tontakeria bat      b) Gure ohitura bat      c) Erromatarren ohitura bat

- Nork uste zuen doministiku egitean izpiritu maltzurak sartzen zirela gorputzean?

- a) Tasiok                      b) Erromatarrek                      c) kristauek

- “Jesus” esatea anakronikoa da

- a) Kevinen ustez                      b) Kristauen ustez                      c) Tasioren ustez

- Tasio doministikuka hasi da eta zera esan dio Kevini:

- a) berak kutsatu duela                      b) bakterioak daudela                      c) bakterioek kutsatu dutela

- Zer du Kevinek?

- a) Sukarra                      b) arratoien gaixotasuna                      c) esperimentuaren emaitza

- Zergatik dio Kevinek X andrea Eskisabel kapitaina dela?

- a) Sukarra duelako                      b) Hala zela aitortu ziolako                      c) Azken gauean egindakoagatik



**51. atala: Bakarka**

51.2.- 2056an eta ortzinauten artean “anakronikoa” omen da erlijioa, baina garai bateko euskaldunen bizitzan leku garrantzitsua betetzen zuen. Hemen dituzu gure mitologiako zenbait pertsonaia. Ezagutzen dituzu? Lotu bakoitza deskribapen eta irudiarekin.

**Tartalo**

Euskal mitologiako izakiak dira, kristautasunaren aurreko euskal herritar paganoak sinbolizatzen dituenak. Erraldoiak eta indartsuak dira, eta etsaiei harri handiak botatzeko ohitura dute. Haiek eraiki dituzte zutarriak (jentilarriak) eta harrespilak (jentil baratzeak).



**Jentilak**

Basoan bizi da. Kixmi jaio zenean, Olentzerokin batera bizirik geratu zen jentil bakarra omen da. Artaldean babeslea da, eta, ekaitz arriskua dagoenean, orro egiten du artzainek artaldea babes dezaten; gainera, otso artaldera hurbil ez dadin arduratzen da. Indar handiko izaki beldurgarri eta gaizto bezala ere irudikatu izan da.

**Basajaun**

**Mari edo Maddi**

Erreka zuloetan egoten dira ilea urrezko orraziaz orrazten. Leku askotan ahate oinak dituzte, baina Euskal Herriko kostan arrain buztana dute. Oso ederrak dira, eta gizasemeak liluratzen dituzte.



**Lamiak**

Mitologiako jainkosa nagusia da. Anbotoko Dama, Aralarko Dama eta Txindokiko Dama, izenak ere hartzen ditu. Gehienetan emakume gorputza eta aurpegiarekin irudikatu izan ohi da, dotore jantzita, baina zuhaitz edo suzko emakume gisara ere agertzen da.



Izaki begibakar eta erraldoia da. Haitzuloetan bizi da eta jendea harrapatu eta jan egiten du.

## 51. atala: Bakarka

51.3.- Baga, biga, higa jatorriz euskal haur-kanta herrikoi bat da. Gerora, Mikel Laboa musikariak sorginen giroko kutsu ilun edo beldurgarria eman eta ospetsu bilakatu zuen.

Baga, biga, higa  
Laga, boga, sega,  
Zai, zoi, bele,  
Harma, tiro, pun!  
Xirristi-mirristi  
gerrena plat,  
Olio zopa  
Kikili salda,  
Urrup edan edo klik  
ikimilikiliklik

- [Baga, biga, higa abestia entzungai. Mikel Laboa eta Donostiako Orfeoia.](#)

<http://www.youtube.com/watch?v=9JyNfyriAk0&feature=related>



51. atala: Bakarka

Transkripzioa: Katarroa (03:00)

K- Atxis!  
 T- Jesus  
 K- Atxis!  
 T- Jesus  
 K- Doministikua egiten dudan bakoitzean Jesus esan behar al duzu?  
 T- Inporta al zaik, ala?  
 K- Ez bereziki... tontakeria bat iruditzen zait.  
 T- Bueno, ohitura bat besterik ez duk.  
 K- A, jakina... eta zu ohituren zaindari sakratua zarenez... Aaatxis!  
 T- Jesus!  
 T- Erromatarrek uste ziaten eztula egiterakoan izpiritu maltzurrek gure gorputzean sartzeko bidea topatzen zutela.  
 K- Ez naiz libratuko azalpenaz, ezta?  
 T- Eta horregatik, eztula egin bezain pronto, Salve! esaten ziaten eta kristauak iritsi ondoren, Salve, Jesus-engatik aldatu ziaten, ulertzen?  
 K-Ez dakit, osasuna ere esan dezakezu. 2056. urtean, bi zientzia-gizon, espazio-estazio batean Jesus esatea...ez dakit, apur bat anakronikoa da.  
 T- Anakronikoa?... Zer esan nahi duen ba al dakik?  
 K- Hara, atera duzu paseatzera berriro zure Ku Klux Klan nortasuna.  
 K- Tasio, orain egizu probetxuzko zerbait eta pasaidazu paperezko mukizapia.  
 T- Klinex hitza marka batetik datorrela eta, ba al dakik?  
 K- Tasio, "EHUko irakasleen moduan" jartzen zarenean oso astuna zara!  
 T- Bale, bale, BALE... lasai, lasai. Atxis!  
 K- Salve!  
 T- Ikusten? Hik kutsatu nauk.  
 K- Bai, klaro, orain nirea izango da errua.  
 T- Norena bada?  
 K- Zer dakit nik... ez dakit non sartzen duzun muturra!  
 T- Baina, hik ez al dakik hemen, espazioan, ezinezkoa dela katarroa harrapatzea. Bakterioek ez zeukatek bizitzeko ekosistema aproposik.  
 K- Ziur gurekin esperimentuak egiten dabiltzala.  
 T- Ez ezak esan tontakeriarik!

K- Injekzioa gogoratzen? Hona etorri aurretik eginikoak analisiak zirela esan, baina benetan gaixotasunak inokulatu zizkiguten.  
 T- Hi, baina, konturatzen al haiz txirrindulari baten moduan ari haizela hizketan, e?  
 K- Bi hanketako arratoiak gara haientzat.  
 T- Haientzat? Baina, nortzuk dituk bada, haiek?  
 K- Badakizu, gobernuaren atzean dagoen gobernuarentzat.  
 T- Hik sukarra daukak, ezta? Bestela ez duk posible halakorik esaten aritzea!  
 K- 38,5 sukarra da?  
 T- Ikusten?  
 K- Baina, Tasio, nola da posible hemen, espazioan, sukarra garatzea? Ez al zara konturatzen?  
 T- Konturatu, zertaz?  
 K-Kobaiak gara, Tasio! Orain ulertzen dut hona etorri aurreko azken gauean Eskisabel kapitainak egin zidana.  
 T- Zer pasa huan azken gau horretan, Johnson?  
 K- Baaaai, bera izan zen, bera da X andrea! Ez al duzu ikusten, Sarasola?  
 T.- Johnson!  
 K.- Bera da X andrea!  
 T.- Johnson!

Erantzunak

51.1.-

a); b); a); a); a); c)

**51. atala: Bakarka**

**Erantzunak 51,2**

Euskal mitologiako izakiak dira, kristautasunaren aurreko euskal herritar paganoak sinbolizatzen dituenak. Erraldoiak eta indartsuak dira, eta etsaiei harri handiak botatzeko ohitura dute. Haiek eraiki dituzte zutarriak (jentilarriak) eta harrespilak (jentil baratzeak).

**Jentilak**



Mitologiako jainkosa nagusia da. Anbotoko Dama, Aralarko Dama eta Txindokiko Dama, izenak ere hartzen ditu. Gehienetan emakume gorputza eta aurpegiarekin irudikatu izan ohi da, dotore jantzita, baina zuhaitz edo suzko emakume gisara ere agertzen da.

**Mari edo Maddi**



Izaki begibakar eta erraldoia da. Haitzuloetan bizi da eta jendea harrapatu eta jan egiten du.

**Tartalo**



Erreka zuloetan egoten dira ilea urrezko orraziaz orrazten. Leku askotan ahate oinak dituzte, baina Euskal Herriko kostan arrain buztana dute. Oso ederrak dira, eta gizasemeak liluratzen dituzte.

**Lamiak**



Basoan bizi da. Kixmi jaio zenean, Olentzerokin batera bizirik geratu zen jentil bakarra omen da. Artaldean babeslea da, eta, ekaitz arriskua dagoenean, orro egiten du artzainek artaldea babes dezaten; gainera, otsoa artaldera hurbil ez dadin arduratzen da. Indar handiko izaki beldurgarri eta gaizto bezala ere irudikatu izan da.

**Basajaun**



## Erantzunak

51.1.-

a); b); a); a); a); c)